



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2022ko azaroa

UPV/EHUKO FAKULTATEETAKO ESPARRU EZ- FORMALETAN HIZKUNTZEN ERABILERA

**Ikerketaren emaitzak
MINTEGIA**

UPV/EHUKo CAMPUSAK



MINTEGIA

Edukia

1	Sarrera.....	3
2	Ikerketaren helburuak	3
3	UPV/EHUko fakultateetan egindako hizkuntzen erabileraren neurketaren emaitzak	4
4	Mintegiaren helburuak	5
5	Mintegiaren gai-ordena	6

MINTEGIA

2017-2018 ikasturtean, UPV/EHUko Unibertsitateko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak zenbait Fakultateetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian. Orduetik gaur egunera, 24 fakultateetako hizkuntza-erabilera behatu du Soziolinguistika Klusterrak, EHUren eskariz.

Orain arte egin diren neurketak UPV/EHUK aurrera daraman "Aktibatu" proiektuaren baitan kokatzen dira eta gogoratu behar da bere helburu nagusia unibertsitatean euskararen erabilera sustatzea dela.

2021-2022ko ikasturtean egindako neurketaren ondoren, EHUko fakultate guztietako eremu ez-formaletako *hizkuntzen erabileraren* lehen datuak eskura daude.

Horregatik, hurrengo erabileraren neurketa egin aurretik, tarte bat uztea proposatu da, hizkuntzen erabileraren bilakaera modu sistematikoan aztertu aurretik diagnostia lehen bilketa honetan jasotako datuak aztertzeko.

Horregatik, 2022.urteari dagokionez, ikerketaren datu horiek kontuan izanda, egoeraren azterketa zehatzagoa egingo da, hizkuntzen erabileran eragiten duten aldagaiak identifikatzeko. Era berean, eta UPV/EHUko "Aktibatu" programari jarraiki, euskararen erabilera sendotzeko ekimen balizkoak proposatzeko lanketa zehatza egingo da UPV/EHUko hiru campusetan, berariaz prestatutako mintegietan.

Dokumentu honetan mintegi horien berri laburra eskainiko da.

MINTEGIA

1 SARRERA

Arestian esan bezala, Soziolinguistika Klusterrak UPV/EHUko fakultateetako eremu ez formaletako hizkuntzen erabileraren neurketak egin ditu 2017-2018 ikasturtean abiatuta, guztira 24 fakultatetan.

Ikerketa honen bitartez, fakultateetan euskararen egoeraren alderdi bat nolakoa den deskribatzeko datu zehatz eta objektiboak eskaintzen ditu.

Datu horiek lortzeko, euskararen erabilera zenbatekoa den kuantifikatuko duten neurketak burutzen dira, izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarrienetakoa.

Erabilitako metodologia Euskal Herriko hizkuntzen erabilera neurtzeko metodologia baliatzen da, alegia, hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologia, eta, esan bezala, Euskal Herriko nahiz herrietako hizkuntzen erabileraren kale-neurketak burutzeko erabili ohi da¹. Oinarri metodologiko hori baliatuz, hainbat gunetan neurketa bereziak egiten ditu Soziolinguistika Klusterrak, hala nola, haur eta gazteen eskolaz kanpoko jardueretan, lantokietan, ikastetxeetan...

Kasu honetan, **UPV/EHUko fakultateetako berezitasunetara egokitu da metodologia**, bertako eremu ez-formaletako ibilbideak diseinatuz eta solaskideen nolakotasunak bereiziz (ikasleak / ez-ikasleak, edo sexuaren araberako banaketa, esate baterako). Hala, ikerketa honetan eskuratzen den informazioa erabilgarri dago euskararen erabilera areagotzeko edo bestelako esku-hartzeak diseinatzeko.

2 IKERKETAREN HELBURUAK

Hizkuntzen erabileraren neurketen bidez, UPV/EHUko fakultateetako eremu ez-formaletako euskararen erabilera zenbatekoa den jakin nahi da.

Hain zuzen, ikerketa honen bidez, galdera hauek erantzun nahi dira:

- zenbat hitz egiten da euskaraz, oro har, fakultateko esparru ez-formaletan?
- ikasleek berdin egiten dute eurak bakarrik osatutako taldeetan daudenean edo irakasleekin ari direnean?
- Eta ez-ikasleek (irakasleek edo beste langileek) berdin egiten dute euren artean hizketan ari direnean edota ikasleekin daudenean?

Horiek horrela, helburu nagusizat ezarri da eremu informaletako hizkuntza-erabilerari buruzko datua eskuratzea fakultate guztietan. Bide horretan, dagoeneko 24 fakultatetan egin da behaketa eta horietan bildutako datu nagusi orokorrak eskaintzen dira dokumentu honetan.

¹ Kale-neurketaren metodologia "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa" (Altuna eta Basurto, 2013) argitalpenean jaso da (<http://www.soziolinguistika.eus/gida>).

MINTEGIA

3 UPV/EHUko FAKULTATEETAN EGINDAKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETAREN EMAITZAK

UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntzen erabilerearen neurketa 2017-2018 abiatu zenetik 2022a bitartean jasotako emaitza nagusiak bildu dira ondorengo taulan, campusen arabera antolatuta².

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
		Eusk. erabilera (%)		Eusk. erabilera (%)		Eusk. erabilera (%)
2017-2018	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	33,1	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	16,5	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	58,1
	Letren Fakultatea	41,1	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	14,8	Informatika Fakultatea	35,2
	Farmazia Fakultatea	22,9				
2019-2020	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	40,4	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	12,1	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	45,4
	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	34,2	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	18,9	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	52,9
2020-2021	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	28,6	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	10,7	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa)	32,6
			Bilboko Ingeniaritza Eskola	6,6	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)	27,5
			Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	22	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	46,1
2021-2022	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	6,3	Arte Eder Fakultatea	13,5	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	42
			Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	8,6	Kimika Fakultatea	46,8
			Zuzenbide Fakultatea	17,6	Psikologia Fakultatea	30,6
					Zuzenbide Fakultatea	29,1

² Campusetan egingo diren mintegietan, datu horiez gain, campus bakoitzeko datu zehatzagoak ere eskaini eta landuko dira, hala nola ikasle- ez ikasleen arabeko emaitzak.

MINTEGIA

4 MINTEGIAREN HELBURUAK

UPV/EHUko zenbait fakultateetan egindako hizkuntzen erabileraren neurketaren emaitzak landuko dira mintegian.

Beraz, mintegiaren **helburu nagusia** fakultateetan egindako hizkuntzen erabileraren ikerketaren emaitzetatik abiatuta euskararen erabilera sustatzea da.

▪ **Bitarteko helburuak:**

- Hizkuntzen erabileraren neurketaren datuak ezagutzera ematea
- Datuak aztertuz erabilera azaltzen dituen faktoreak ezagutzea
- Praktika onak identifikatzea
- Euskararen erabilera sustatzeko ekimen berrien diseinuan laguntzea
- 2022ko udazkenean izango den Euskaraldian fakultateetan izango den lanketarako laguntza

▪ **Atazak**

- Saiotan parte hartzera gonbidatuko dira campus bakoitzeko euskara zuzendariak eta fakultateetako arduradunak. Horrez gain, aztertuko da interesa izan dezaketen beste irakasle eta ikasle ere gonbidatzea.
- Campus bakoitzean saioan.
 1. Soziolinguistika KLusterrak egindako neurketen emaitzak aurkeztuko dira, honako helburu hauekin:
 - Ikerketan parte hartu duten fakultateetan erabilera-datuak ezagutzeko. Fakultate bakoitzean izan diren arduradunekin partekatuko da, kasu bakoitzean egin daitekeen erabilera aztertzeko.
 - Datuak aztertuz, fakultate bakoitzaren ezaugarriak ezagutu eta euskararen erabileraren inguruan parte-hartzaileek duten ezagutza partekatzea, diagnosi kualitatiboa osatzeko.
 - Euskararen erabilera kualitatiboki ezagutzea eta sentsibilitatea areagotzea.
 2. Informazioa aztertu eta diagnosian oinarrituta euskararen ekimenak diseinatzea baliatzea fakultateetako ikasleak zein ez-ikasleen motibazioa areagotzeko.

MINTEGIA

5 MINTEGIAREN GAI-ORDENA

UPV/EHUko FAKULTATEAN HIZKUNTZEN ERABILERA MINTEGIA: Ikerketaren emaitza nagusiak

Gai-ordena

Harrera eta aurkezpena	5 min.
Sarrera. Mintegiaren helburua	5 min.
1. UPV/EHUko fakultateetako eremu ez-formaletan hizkuntzen erabileraren neurketa Ikerketaren justifikazioa, emaitza orokorrak hiru campusetan, eta, zehazki, Arabako campuseko euskararen erabileraren datuak	20 min.
2. Egoera azaltzen duten arrazoien inguruko lanketa – Zure ustez, zergatik daude halako desberdintasun handiak fakultate batetik besteko euskararen erabileran? – Zerk laguntzen du euskara gehiago erabil dadin? – Zerk oztopatzen du euskararen erabilera fakultatean?	20 min.
3. Praktika onen identifikazioa Fakultateetan euskararen erabilera indartzen duten egoerak, edota erabilera indartzeko ekimenak.	20 min.
4. Aurrera begira zer Euskararen erabilera sustatzeko aurrerantzean egin daitezkeen ekimenak	15 min.
5. Agurra	